

Berdintasuna 01

Apirileko gogoeta honetan Berdintasun Balioren alderdietako bat azpimarratzen duen Genero Berdintasuna. Hau da, Arizmendiarrrietak nola ikusten duen EMAKUMEA gizarte barruan. Berdintasunaren diementsio guztiak azpimarratzen ditu: Zaharrei buruzko jokaera eta gizarte honek Haurrei buruzko duen jarrear.

*Gure gizartearen benetako balioen neurritzat jartzen ditu. Gure giza garapenaren neurri. EMAKUMEAari buruz oso radikalak dira bere ideiak. Ez du bakarrik leku eta oportunitate berdinak eskatzen. Gizonen jokabide eta erantzunkizuna salatzen baitu zuzen. Bere hitzetan: “Baliteke guk geuk gaixotasun moduko nagusitasun sentimendua edukitzea”
Eta aurrera begiratzuz, gizon eta emakumeon elkarlana aldarritzen du: “...gizartean emakumearen laguntzarik gabe aurrera egitea da hanka bakarrez korrika egin nahi izatea.”*

Emakumearen posizioa da, gizarte guztietan, bere garapen mailaren neurri zehatza. (66)

Beste gogoeta batzuk

Gure herria gizakiaren presentzia bakarrarekin ahuldu egiten da (56)

Emakumeek kontzientzia sozial gutxi badute, hori da gure komunitateak kontzientzia gutxi duelako.(67)

Gizonok ez dugu eskubidea, zehatzago esanda, ez dugu behar besteko arrazoi morala emakumeen portaera kritikatzeko, gu geu gara-eta gizartea hala antolatu dugunok emakumeek konpartsa zeregina baino izan dezaten, eta, politago edo zatarrago, apaingarri baino izan ez daitezzen gizartearen erregea, gizona, pozik uzteko (69)

Gure pentsaera itxiaren biktimak gara, emakumeek dituzten ahalmenak eta oso prozesu operatorio ezberdinetara moldatze-ko duten gaitasuna epaituta. Geure barruan, pozik sentitzen gara gure emakumeak heldugabetzat hartuta, lanaren eta gizonaren aurrean beti ahul ikusita. Baliteke guk geuk gaixotasun moduko nagusitasun sentimendua edukitzea. (70)

Emakumea kexu da kontuan hartzen ez dutelako eta berak dituen ahalmen eta gaitasunak gutxiesten dizkiotelako. Egia da, baina, neurri batean, hauxe galdetu beharko lioke bere buruari: zer egiten dugu baldintza beretan egoteko? Ez da nahi-koa negar egitearekin zorte txarra dutela esanda; borroka egin behar dute dagokien posizioa konkistatzeko, baina ez tietan eta ozpinetan egonda (68)

Gizonek eta emakumeek elkarren beharra dute jarduera eta gizakiaren bizitzaren maila guztietan, eta, ondorioz, gizar-tean emakumearen laguntzarik gabe aurrera egitea da hanka bakarrez korrika egin nahi izatea (73)

Gure ustez ez dago gauza zentzugabeagorik emakumea etxearen esklabo izatera behartzea, etxetik ihes egitera bultzatzea baino (72)

Zientziaren garaipen handiek salbazio txikienik ez duten izakienetako bat salbatzeko balio izan dute: emakumea (71)